



## **ERAKUNDE-ADIERAZPENA MEMORIAREN EGUNA DELA ETA**

### **2021EKO AZAROAREN 10A**

Aurten ere, Lasarte-Oriako bizikidetza-mahaitik memoriarekin, giza eskubideekin eta motibazio politikoko indarkeria jasan duten pertsona guztiekin dugun konpromisoa adierazi nahi dugu, eta iraganari modu partekatuan begiratzeko eta sufrimendu guztia aitortzeko dugun borondatea berretsi nahi dugu. Helburu hori lortzeko, Argituz-ek 2016an egindako "Memoria partekatu baterantz" txostenarekin lanean jarraitzen dugu. Horrek ez du esan nahi gertatutakoaren irakurketa egiterako orduan desadostasunik ez dugunik edo memoriari ikuspuntu desberdinetik heltzen ez diogunik. Memoria kaleidoskopikoa da eta ertz asko ditu. Horregatik, ezinbestekoa da gertatutako guztia mahai ganean jartzea, Lasarte-Orian eman diren giza eskubideen urraketa eta sufrimendu guztiak aitortzea, eta maila lokalean, behar diren bitartekoak jartzea, iraganean, gure herrian pairatu dugun haustura soziala berrezartzeko.

Ulertzen dugu, gizarte gisa aurrera egin eta etorkizunean, Lasarte-Orian bizikidetza bermatu nahi badugu, iraganaren irakurketa partekatua egin behar dugula, elkarri begiraturik, elkarri entzunez eta elkar aitortuz. Printzipio demokratikoetan oinarrituz, pertsona erdigunean jarriz, enpatia praktikaturik eta sufrimendu guztia aitortuz. Azken finean, memoriak, biktimekin aitortza, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea sustatu behar ditu.

Aurtengo adierazpena eskerrak emateko da: eskerrak eman nahi dizkiegu Lasarte-Oriako herritarrei, urte osoan zehar bizikidetza-mahaitik antolatu ditugun ekintzetan izan duten konpromisoagatik eta parte-hartzeagatik. Eskerrak eman nahi dizkiogu Herritarren foroari, auzokideekin, sukaldean, giza eskubideen urraketen eta bestelako sufrimenduen biktimekin egindako lanagatik. Erakusketa batean hezurmamitu den lana, eta ikusgai egongo dena

Mercero aretoan, azaroaren 29ra bitarte.

Asteleheneretik-ostiralera 17:30etatik 20:30etara eta larunbatetan 11:00-13:30etara.

Guk, bien bitartean, lanean jarraituko dugu bizikidetza-mahaitik, sukalde-lanetan, giza eskubideak errespetaturik eta elkarriketa sustaturik, ekimen berriak abian jartzeko adostasunak eraikitzeke erritmoan.



## **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL POR EL DÍA DE LA MEMORIA**

**10 DE NOVIEMBRE DE 2021**

Un año más, desde la mesa de convivencia de Lasarte-Oria, queremos manifestar nuestro compromiso con la memoria, con los derechos humanos y con todas las personas que han padecido la violencia de motivación política. Queremos ratificar nuestra voluntad de mirar al pasado de forma compartida y reconocer todo el sufrimiento. Para conseguir este objetivo, seguimos trabajando con el informe realizado por Argituz en 2016 "Hacia una memoria compartida". Eso no quiere decir que no existan discrepancias o distintos enfoques sobre lo sucedido, la memoria es caleidoscópica y tiene muchas aristas. Por ello, es necesario poner encima de la mesa todo lo sucedido, reconocer todas las vulneraciones de derechos humanos y otros sufrimientos acaecidos en Lasarte-Oria y poner los mecanismos necesarios, desde lo local, para restañar la fractura social vivida en el pasado.

Entendemos, que, si queremos avanzar como sociedad y garantizar la convivencia futura, debemos realizar una lectura inclusiva del pasado, mirándonos, escuchándonos y reconociéndonos. Basándonos en los principios democráticos, poniendo la persona centro, practicando la empatía y reconociendo todo el sufrimiento. Al fin y al cabo, la memoria debe promover el reconocimiento, la reparación y la garantía de no repetición de todas las víctimas.

Este año queremos agradecer: agradecer a la ciudadanía de Lasarte-Oria por su compromiso y su participación en las actividades que hemos organizado desde la mesa convivencia durante todo este año. Queremos agradecer al foro ciudadano su trabajo de vecindad, desde la cocina, con las víctimas de vulneraciones de derechos humanos y otros sufrimientos. Trabajo que se ha visto materializado en una exposición que se podrá ver en la sala Mercero hasta el 29 de noviembre.

De lunes a viernes de 17:30-20:30 y los sábados de 11:00-13:30

Por nuestra parte, seguiremos trabajando desde la mesa, desde la cocina, respetando los derechos humanos y dialogando a ritmo de construcción de consensos para poner en marcha nuevas iniciativas.